

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Azkarate Villar

*Donostia,
Gipuzkoa
(1955)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaioa, hiru ahizpatan erdikoa (ama berarenak bi; aitaren aldetik ahizpa zaharrago bat du, Bergaran). Guraso biak Bergarakoak zituen, eta hango euskara hitz egiten zuten etxean. Arrasate kalean bizi ziren, eta Karmele Esnalen ikastolan ibili zen lau urtetik zortzi urte bitartean. Ondoren, San Bartolome moja-ikastetxean egin zituen ikasketak, gaztelaniaz. Filosofia eta Letrak ikasi zituen, Deustun, eta Filologia Erromanikoko adarra aukeratu zuen. Euskara klaseak ematen hasi zen, artean ikaslea zela. 1978an irakasle lanetan hasi zen, Euskal Filologian, Deustun; 1988an doktoretza tesia ere egin zuen. Ordutik EHUKo irakaslea da, Euskal Filologian. Aditua da lexikologian eta morfologian. Hainbat ardura kargu izan zituen EHUKo administrazioan, Euskarako errektoreorde besteak beste (euskara-plana diseinatzen ere jardun zuen). Euskaltzain osoa da 1992. urtetik: lehen emakumezkoa euskaltzain oso izaten, eta hainbat lan egin ditu Euskaltzaindian. Euskal Telebistan '*Balinda*' saioa aurkeztu zuen, eta EitBko hizkuntza-aholkulari ere izan zen aldi batez. 2001etik 2009ra Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua izan zen; baita Jaurlaritzako bozeramailea ere, 2005etik 2009ra. Bi alabaren ama da. San Telmo museoan elkarriketatu genuen.

Zintak

DON-213

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-10-28
- **Iraupena:** 131 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Odria, Haizea

Pasarteak

1. Giro euskaltzale eta abertzalean hazia

- **Erref:** DON-213/004
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:03:46. **Bukatu:** 00:06:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Mirenen etxean euskaraz hitz egiten zen. Garai hartan Donostiako giroa ez zen oso euskalduna. Ahizpa eta biak Karmele Esnaen ikastolara joan ziren. Familia abertzaleak ziren han elkartzan ziren denak. Batxilergoa ikasten hasi zenean bukatu zen Mirenentzat euskal giro horretako bizimodua.

2. Euskara batua eta euskalkien gaineko eztabaida

- **Erref:** DON-213/007
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 00:07:54. **Bukatu:** 00:12:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Hizkuntza gehienek dauzkate bi erregistro: estandarra edo formalagoa dena eta eguneroko erabilerakoa. Mirenen ustez, ez dugu hori hasieratik behar bezain garbi izan. Batuaren sorrerarekin eta ikastolekin konplexuak ere agertu ziren.

3. Euskararen jakintza vs. erabilera

- **Erref:** DON-213/008
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:12:23. **Bukatu:** 00:15:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Soziolinguistikaren ikuspegitik, hizkuntza batek bi erregistroak behar ditu: aldaera estandar eta formala eta baita eguneroko erabilerakoa ere. Gaur eguneko arazo nagusietako bat hori da, hain zuzen: eskolan ikasitako hizkuntza gero lagunekin edo familiarekin ez da erabiltzen.</p>

4. Ikastetxeetan euskalkiak erabiltzeari buruz

- **Erref:** DON-213/009
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:15:02. **Bukatu:** 00:18:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Mirenen iritziz, eskolako ikasgaietan euskara batua erabili beharko litzateke, baina beste eremu batzuetan badago euskalkiak erabiltzeko aukera, eta ona litzateke, gainera.

5. Hitanoaren gainbehera

- **Erref:** DON-213/011
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:18:19. **Bukatu:** 00:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoa bultzatzeko saiakera bat 'Goenkale' izan zen. Baina han erabiltzen zen hitanoa arautua zen eta ez zeukan antzik inongo herritako hitanoarekin. Hitanoa galtzen ari da.</p>

6. Euskalkien erabilera naturala

- **Erref:** DON-213/013
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:21:16. **Bukatu:** 00:23:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Umetan ikastolan eta kalean gipuzkera erabiltzen zuten eta etxean berriz Bergarako hizkera. Natural egiten zuten aldaketa. Gaur egun ere nabaritzen diote ez daukala Donostiako hizkera.

7. Karmele Esnalen ikastola

- **Erref:** DON-213/016
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:28:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ahizpa eta biak Karmele Esnalen ikastolara joan ziren. Orduan etxebizitza arrunt bateko gela bat zen. Erabiltzen zuten materiala aipatzen du: txotxak, 'Xabiertxo' eta 'Martin txilibitu' liburuak, arbela... Adin ezberdineko haurrak elkarrekin egoten ziren. Eskola klandestinoak zen. Jaunartzea euskaraz egin zuten, aparteko parrokia batean.

8. Ikastolan Elbira Zipitriaren metologia jarraitzen

- **Erref:** DON-213/017
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:28:18. **Bukatu:** 00:30:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Karmele Esnalek Elbira Zipitriaren metodologia jarraitzen zuen. Ikasten zituzten abestiak gerra aurreko ikastoletarako prestatutakoak ziren. Ipuin eta abestietan asko oinarritzen ziren. Karmelerekin trebatzen andereño bat baino gehiago egon ziren. Inspekziarik ez du gogoan.

9. Ikastolatik mojen ikastetxera: aldaketa gogorra

- **Erref:** DON-213/018
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:30:41. **Bukatu:** 00:34:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

8 urtera arte giro euskaltzalean ikasten egon ondoren, sekulako aldaketa izan zen Mirenentzat San Bartolome mojen ikastetxera pasatzea: arauak, uniformeak, hizkuntza... Mojen ideologia.

10. Ikastetxean euskara gutxietsita

- **Erref:** DON-213/020
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:36:42. **Bukatu:** 00:39:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

9-10 urterekin ikastolako lagunekin jarraitu zuen. Gerora kolegioan egin zituen lagunak. Ikastolan ibilitako ikasle euskaldunak gela berean ez jartzen saiatzen ziren mojak. Gurasoei beldurra sartzen zieten, umeei euskarak arazoak bakarrik ekarriko zizkiela esanez.

11. Unibertsitate garaian giro euskaltzalea berreskuratzen

- **Erref:** DON-213/021
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 00:39:13. **Bukatu:** 00:44:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Filosofia eta Letrak karrera egin zuen Donostiako EUTGn (gaur egun Deustuko Unibertsitatea). Hirugarren urtean Filologia Erromanikoa aukeratu zuen. Berak karrera amaitu zuenerako Euskal Filologiako lizentziatura martxan zegoen dagoeneko. Euskaltzale giroan murgildu zen berriz. Patxi Altunak alfabetatze klaseak eskaintzen zituen eta Mirenek Euskaltzaindiaren D titulua atera zuen. Aldi berean Hizkuntza Eskolan klaseak ematen ere aritu zen.

12. Garaiko euskal kulturaren jarraitzaile

- **Erref:** DON-213/022
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:44:19. **Bukatu:** 00:46:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

- Aisia » Kultura

Laburpena:

Garaiko euskal kulturaren jarraitzaileak ziren Mirenen etxean. 'Ez dok amairu' eta euskal kantagintza berria. 'Jarrai' antzerki taldea. Bertsolaritza.

13. Euskara batuaren eta 'H'-ren inguruko eztabaida

- **Erref:** DON-213/026
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:51:18. **Bukatu:** 00:55:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1968ko Arantzazuko Biltzarrean hartutako erabakien ondoren sortutako tirabirak. Euskara batuaren sorrerak eta 'H'-ren erabilerak zatiketa sortu zuen. Belaunaldi tradizionalago baten eta gazteago baten arteko gatazka izan zen. Ikastolaren barruan ere aldekoak eta kontrakoak zeuden.

14. 60. hamarkadako aldaketak

- **Erref:** DON-213/027
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:55:36. **Bukatu:** 00:57:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Idaztea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

60. hamarkadako aldaketak. Txillardegi. Saizarbitoria. Lur argitaletxea.

15. Euskal Filologiako irakasle

- **Erref:** DON-213/028
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:57:14. **Bukatu:** 00:59:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Karrera amaituta Magisteritza eskolan hasi zen, baina bigarren urtean, Patxi Altunak eskatuta, Euskal Filologian klaseak ematen hasi zen EUTG-n (gaur egun Deustuko Unibertsitatea). 1978tik 1988ra egon zen bertan. 1988tik aurrera, Euskal Herriko Unibertsitatean jardun zuen.

16. Doktorego-tesia Koldo Mitxelenaren gidaritzapean

- **Erref:** DON-213/029
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:59:07. **Bukatu:** 01:03:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>1987an doktorego-tesia aurkeztu zuen EHU. Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean hasi zuen, baina Miren tesia idazten ari zela hil zen. Orduan Ibon Sarasolari eskatu zion haren ordezkotzarako. Tesia egiteko zailtasunak. 1980an Estatu Batuetara joan zen beka batekin. Koldo Mitxelenarekin harremana.</p>

17. Koldo Mitxelenaren klaseak

- **Erref:** DON-213/030
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:03:05. **Bukatu:** 01:05:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bere tesia egiten ari zela, Koldo Mitxelenaren klase batean egoteko aukera izan zuen. Oso gustura egon zen Miren, baina ikasleentzako haria jarraitzea zaila izango zela iruditu zitzaion.

18. Euskal Filologiako klaseen prestaketa

- **Erref:** DON-213/031
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:05:03. **Bukatu:** 01:07:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Euskal Filologiako irakasle. Euskarazko material falta zegoen. Klaseak prestatzen orduak ematen zituen.

19. Euskaltzain oso izendatu zuten lehen emakumea

- **Erref:** DON-213/035
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:10:31. **Bukatu:** 01:11:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 1983an eta Euskaltzain oso 1992an. Izendapen hori lortu zuen lehen emakumea izan zen.

20. Jose Migel Barandiarani buruz hitzaldia

- **Erref:** DON-213/036
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:11:21. **Bukatu:** 01:13:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Euskaltzain oso izendatu zuten 1992an. Ohitura da sarrera hitzaldian aurreko euskaltzainari aipamena egitea eta Mirenek Jose Migel Barandiaranen bizitzari eta lanari buruz egin zuen.

21. Emakumeek gehiago borrokatu behar

- **Erref:** DON-213/037
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 01:13:44. **Bukatu:** 01:17:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

EHU unibertsitate publikoa izanik, oposizio bidez lortzen dira lanpostuak, beraz ez du nabaritu gizon/emakume bereizketarik. Enpresa pribatuetan, aldiz, emakume batek zailagoa dauka goiko kargu bat lortzea. Askotan gertatzen da emakumeak berak familiari lehentasuna ematea.

22. EHUKo euskara-planaren sorrera

- **Erref:** DON-213/038
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:17:05. **Bukatu:** 01:20:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Euskal Herriko Unibertsitatearen administrazioan hainbat kargu bete ditu. 1996an euskarako errektoreordea zela, euskara karrera guztietan sartzeko euskara-plana diseinatu zen. Honek irakasle elebidunak kontratatzea ahalbidetu zuen.

23. Euskararen gorakada unibertsitatean

- **Erref:** DON-213/039
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 01:20:13. **Bukatu:** 01:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Euskaraz ikasten duten ikasleen gorakada nabarmena izan da EHUn. Unibertsitatean sartzeko hautapropa ikasleen erdiak baino gehiagok euskaraz egitea aukeratzen dute, baita karrera bera ere, baina gero ez zaie euskaraz hitz egiten entzuten.

24. Hizkuntza ohiturak aldatzea zaila da

- **Erref:** DON-213/040
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:23:05. **Bukatu:** 01:25:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Hizkuntza ohiturak aldatzea zaila da.

25. Kultura Sailburu izatera nola iritsi zen

- **Erref:** DON-213/042
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:26:27. **Bukatu:** 01:28:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailburua izan zen 2001-2009 bitartean. Urte zailak izan ziren ('Egunkaria'-ren itxiera 2003an) baina baita emankorrak ere.

26. 'Egunkaria'-ren itxiera, Kultura Sailburu zela

- **Erref:** DON-213/043
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 01:28:27. **Bukatu:** 01:33:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

'Egunkaria'-ren itxiera. Martin Ugalderi ondasun guztiak kendu zizkioten. 'Berria'-ren sorrera eta jendearen erantzuna.

27. Politikoki bizitako mugarriak

- **Erref:** DON-213/045
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:34:10. **Bukatu:** 01:37:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika

Laburpena:

Politikoki bizitako mugarriak: Estatutu berria defendatzera joan zen Madrilera. Kontsulta legea onartzea. Madrileko Atotxako atentaturen momentu zaila.

28. Kulturako diru-laguntza batekin polemika

- **Erref:** DON-213/046
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:37:04. **Bukatu:** 01:39:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Kepa Junkerari emandako diru-laguntza batekin polemika egon zen 2009an. 'Ze esatek' musika taldeak abesti bat atera zuen: 'Maite zaitut Miren Azkarate'.

29. ETBko aurkezle eta hizkuntza aholkulari

- **Erref:** DON-213/048
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:40:52. **Bukatu:** 01:43:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

1994an ETBko aurkezle ibili zen, 'Balinda' lehiaketan, Kike Amonarrizekin. 2000. urtean hizkuntza aholkulari ere izan zen EITBn.

30. Euskararen garapena Donostian

- **Erref:** DON-213/051
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:46:08. **Bukatu:** 01:47:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaur egun askoz gehiago entzuten da euskara Donostian.

31. Oscar sarietan

- **Erref:** DON-213/053
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:47:56. **Bukatu:** 01:49:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Kultura Sailburu bezala Oscar sarietan egotea egokitu zitzaion.

32. Euskal zinemaren erronkak

- **Erref:** DON-213/055
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:49:09. **Bukatu:** 01:51:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Kultura Sailburu zela, EITBekin euskal zinema bultzatzeko ahaleginak egin ziren. Euskal zinemagileen erronkak.

33. Gerraostean emakumeek zerbitzu soziala egin beharra

- **Erref:** DON-213/057
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:54:01. **Bukatu:** 01:57:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gerraostean emakumeek zerbitzu soziala egin behar izaten zuten. 'La gota de leche' izeneko proiektua haurtzaindegi moduko bat zen eta Mirenek bertan egin zuen zerbitzu soziala, ume txikiak zaintzen. Josten eta umeentzako arropatxoak egiten ikasi behar izaten zuten.

34. Etxean jasotako hezkuntza

- **Erref:** DON-213/058
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:57:03. **Bukatu:** 02:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amak oso garbi zeukan alabek ikasi egin behar zutela, gero etxetik kanpo lana lortzeko. Amarentzat lan ideala idazkaria izatea zen. Aitak ere beti defendatu zuen unibertsitateko ikasketak egitea.

35. Zer da euskara Mirenentzat

- **Erref:** DON-213/060
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 02:02:01. **Bukatu:** 02:02:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Ezin du imajinatu bizitza euskararik gabe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com